

LEZOKO KALEGARBITZAILEARENA ETA BESTE ZENBAIT IXTORIO

Lezok, herri haundia ez izan arren, bere sona izan du urteetan zehar, hortarako aitzakirik haundiena, bertan dagoen Santo Kristo famatuaren irudia izan delarik. Hala eta guztiz ere, bestelako aipamen eta erreferentziak han-hemenka aurki daitezke. Honako hauek ideia bat emango digute. Ikus ditzagun.

Idazle eta anarkismo abertzalearen teoriko ospetsua den Mark Legasse lapurtarraren «Las carabinas de Gastibeltza» izeneko liburuarren 33 orrialdean, «Allegro» izeneko atalaren barruan, honako erreferentzi hau irakur daiteke gure herriari buruz:


«Siendo muy joven, mi tío Gaudioso, (...), se vio trastornado por la aventura del barrendero de Lezo. Incorregible distraído, este activo empleado del servicio municipal de limpieza cayó en un letargo ambulante cuando estaba barriendo las hojas muertas en el atrio del Santo Cristo. Escoba en mano y sin parar de barrer, cruzó Gipuzkoa, atravesó la frontera y subió hacia París, dejando pasmadas, a su paso, a las multitudes. Salió de su estado segundo frente al estanque de Luxembourg, donde Victor Hugo le despertó. Fue por mediación del barrendero de Lezo cómo el poeta francés nos conoció y se hizo amigo nuestro. Más tarde, mezclando el nombre de Gastibeltza y el apodo de mi padre con el singular comportamiento de su protegido, Hugo compuso un extraño poema sobre el viento de las montañas que enloquece. En cuanto al barrendero guipuzcoano, murió bruscamente de aburrimiento en la calle Jacob. Mi tío sacó la conclusión de que era perfectamente exacto el adagio que recomienda barrer delante de propia puerta y nunca delante de la ajena. Ahora bien, ésta es precisamente la lección que nuestro pequeño pueblo da al resto de la humanidad. Cada artículo de los Fueros por los que tanto apego tenemos, es una crin de la escoba que hace de nuestro país una tierra que nos es propia».

Oso parabola polita eta benetan bitxia, Legassek paragrafo hauetan egiten duena Lezoko kalegarbitzailearen erratza eta Euskal Herriaren askatasuna gonbarazio zail bezain koloretsu batetan nahastuz. Ondotxo dakigu zein idazle eta pentsalari azkar eta malabarista den gure Legasse, baina zergatik Lezoko kalegarbitzailea sartu honelako parabola batetan? Zer berezia harrapatzen dio Legassek Lezori, bere liburuan modu honetan ager dadin?

Orain bizpahiru urte Maskarada antzerki taldeak moldatu egin zuen Legasseraren liburua, antzesteko moduan ipiniz. Zazpi Euskal Herrietan zehar ibili ondoren fama haundia eman zioten lan honi. Ikus dezagun Susaren bitartez argitaraturiko antzeslan honetan aurreko testuari egindako itzulpen aske, jator eta ederra:

LAS CARABINAS DE GASTIBELTZA MARC LEGASSE

LA LARGA LUCHA DE LOS VASCOS POR SU LIBERTAD



PROLOGO

"BELTZA" Y "ALFONSO SASTRE"

«Ttikitandik dudan grina da, aitari Lezoko barrenderoaren ixtorioa entzun nionean sortu zitzaidan. Kontatu al dizuet inoiz Lezoko barrenderoaren mentura? Ba gizon hura oso distraituia omen zen, atarramendurik gabekoa, eta behin batez, Kristo Santuaren eliz atariko hosto lehorrak eskobatzen ari zen bitartean, bada lozorro ibiltari bitxi batean sartu omen zen gure garbitzaile municipal bizkor hura. Eskoba eskutan zuela eta eskobatzeari utzi gabe, muga pasa eta Parisera iritsi zen, pasieran topatzen zituen jendeak harri harri eginda utziz, noski. Eta ba al dakizue nork esnatu zuen gure barrenderoa Luxenburgoko lorategian zebilela?, bada Victor Hugo berak. Bai, Lezoko barrenderoaren bitartez izan zuen poeta frantsesak euskaldunen berri, eta orduz geroz gure laguna egin zen, eta poema bat ere egin zuen mendietako haize erotzailearen gainean. Ixtorio xeblea, dudarik gabe, baina halere gauza bat erakusten digu: gure herria ez dagoela bakarrik bere independentzia eta askatasunaren aldeko borroka egoskorrean».

EXKIXU

Txillardegiri



euskal literatura-elaberria

ELKAR

Kuriosoki nahiz eta libretoan honako itzulpen eta antzerkirako egokitze hau azaldu, obra antzeztera-koan eta Lezoko kalegarbitzailearen aipamena egite-koan, beste honako hitz hauek ipini zituzten bere ahoan:

«Bizkaiko eta Gipuzkoako barrenderoek ezker alde-
rantz eskobaten duten bitartean, Araba eta Nafa-
rroakoek eskuin alderantz egiten dute. Eta Iparralde-
koek, zenbaitetan aieka batetarantz, eta bestetan beste
aiekarantz».

Badirudi, Lezo eta bere inguruek zerbait dakarkio-
tela burura gure Mark Legasseri, bere beste liburu ba-
tetan, «Santo Azkarraren Parabola» izenekoan hain
zuzen beste honako aipamena egiten bait du, Jaizki-
bel mendiari buruz kasu honetan.

«Jakín ezazue bada, jaun-andreok, moroen lurreta-
rako bidaia horretan, Iñigo Euskal-Argiak bakarrik
laguntzen zuela Nafarroako errege. Eta hemen, kon-
dairak ez du deus ere erraiten Santxo Azkarrak, Iñigo
eta Iñigoren ahaideak aipatzen dituelarik...»

Abarka erregeren denboran, Jaizkibel gainean bizi
zen aizkolari baten alaba. Mendipeko oihan buruan
bazen dorre bat. Abarka horrat heldu zen, otsoen eta
oreinen lasterkatzerat, gau ala egun, negu ala uda, be-
ti zaldiz ihizan ibilki, Piko muturratik Oiarsoko por-
turaino.

Egun batez, iturri baten ondoan gelditu zen edate-
ko. Orduan neskatxa gazte bat ikusi zuen, uraren gai-
nerat makurtua.

Hurbildu zen eta neskatxak poliki eskaini pegar-
tik edan zuen.

Erregea maiz jin zen bertiz ere iturri hortatik eda-
tera, baina ez baitzekien neskatxaren izenik, Eus-
kal-Argia deitu zuen, Euskara argi eta garbi mintzo
zuelakotz. Gero oihan barnean bi amoranteek gogotik
elgar maitatu zuten gordezka.

Errege urrun zegoen batez, Euskal Argiak haur bat
ukan zuen. (...)

Baina Lezo eta bere bailara, Legassen inspirazio
iturria izatetik kanpo, beste zenbait idazleri paperak
zirriborrazteko beta eman die era berean. Hauxe da
ere Txillardegiri bere azken elaberrian, Exkixu izene-
koan, gertatu zaiona. Irakur dezagun:

Errenderia gurutzatu nuen. Ibaitek, beste askotan
bezala, sekulako kiratsa zetorren. Eta «Irun-Madrid»
burnibidea, hutsik eta isilik, bertan behera utziz, Lezo
aldera abiatu nintzen. Mezatarra nindoan. Jaizkibel
neukan aurrean; eta aurrekaldean alimaleko eliza ho-
riaren figura nabarmentzen zen, bertako zaindari es-
kerga. (...) Elizaren aurreko aterpetxoan, eta plaza
osoan, Jaizkibeldik eta Gaintzurizketatik etorririk,
jazkerak ilun eta txapelak hegazabal, baserritarrak
ageri ziren nagusi. (...) Ez dakit apaizak zer esan ote
zuen (...), ez bainintzen ni igande hartan Lezoraino
joan, inolako sermoi bila. (...). Egia aitortzerakoan
—eta egin egingo dut— umetango baserri kutsuaren
atzetik joan nintzen Lezoraino goiz bitxi hartan».

Ikusten denez, Lezok oso inpresio ezberdinak sortu
egin ditu honera etorri direnen gogoan. Batzuentzako
lur mixteriotsua eta parabolen iturria den bitartean,
besteentzako euskaldun baserritarren babestoki bihur-
tzen da. Baina, bai batak eta bai besteak, gauza bera
dakarkigu lezoarren burura: Lezok bizirik dirau, eta
aurrera darrai. Mintzatzen dira gutaz, modu batez
edo besteaz, bizi garenon seinale alegia.

Karloz Barrentsoro